

# 18

Igandea Egunean zehar Erdigunean

## XLII. Usurbilgo Sagardo Eguna

**Antolatzailea:** Sagardo Egunaren lagunak.

**11:00** Botatzaileen argazkia.

**11:30** Sagardo Egunaren Irekiera.

Baserriko zein sagardotegi ezberdinetako sagardoa dastatzeko aukera. Honetaz gain, pintxo aukera zabalda.

**15:00** Botatzaileen bazkaria Udarregi ikastolan.

**17:30etik 20:00etara "Elektrotxorongo"** Elektrotxoranga Usurbilgo kaleetan zehar.



### UDAFEST 2025 ZUBIETAN

**Antolatzailea:** Zubietako Eskola Txikiko Guraso Elkarte. **Non:** Zubietako plazan.

**Maiatzak 20 16:45** Eskularen eguna: Serigrafia tailerra, henna...

**Maiatzak 21 16:45** Ipuin kontalaria.

**Maiatzak 23 16:45** Herri kirolen ginkana, plaza dantza saioa, pintxo jana (Harri Batzarraren eskutik) eta musika, Euskaraldiaren egitarauaren barruan.



# 25

Igandea Egunean zehar Erdigunean

## Kantu Festa

**Antolatzailea:** Usurbilgo Euskal Kantu Taldea.

Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak, Kantu Festa ekimena antolatuta du Zarauzko Montetxio, Lasarte-Oriako Xumela eta Hondarribiko Olagarro kantu taldeekin partekatuz. Euskaraldia-2025 ekimenaren amaierarekin bat eginez, euskaldun egiten gaituen euskara bultzatzuz, euskal kantuen aldarrikapena plazaratu nahi luke, kantuez eta kontuez gozatzeko gogoaz dagoen guztia gonbidatuz.

**10:30 Herri-bisita:** Usurbil Museo Irekia.

**12:00 Kantu Jira.**

**14:00 Kantu-bazkaria** ikastolako jangelan. **Menua:** 25 €. (Kantu taldearekin harremanetan jarri.)

**18:00** -Cavallé-Coll/Mutin, Salbatore parrokiako organoaren azalpena Joan Luis Atxegaren eskutik.

- Elizako koruan organoaren laguntzarekin: Txoria-txori./ Gure ametsak.

- Dema plazan kantuzaleon arteko agurra.

- Partitzeko tenorea.



## USURBIL MUSEO IREKIA

### BISITA GIDATUAK

• **Maiatzak 4, igandea**

**Museo Irekia** Sutegi 11:00

• **Maiatzak 18, igandea**

**Usurbilgo Sagardo Kultura** Borda Berri kalea, Sagardoaren eskulturaren 10:30

• **Maiatzak 24, larunbata**

**Salbatore Elizaren Ondarea** Salbatore Eliza 11:00

• **Maiatzak 25, igandea**

**Museo Irekia** Sutegi 11:00 (Gaztelaniaz)

• **Maiatzak 28, asteazkena**

**Zero Zabor** Udaletxea 10:00

• **Maiatzak 30, ostirala**

**Zaintzaren Usurbil** Udaletxea 10:00



**Sarrerak:** <https://650usurbilbizi.eus/agenda/>

**Telefonoa:** 747 485140

[turismoa@650usurbilbizi.eus](mailto:turismoa@650usurbilbizi.eus)

### KZ-GUNEKO IKASTAROAK

#### AURREZ AURREKOAK

**PC teklatua eta sagua.** Hasieratik nola erabili ikas ezazu.

**Maiatzak 5-8** 09:00-11:00 (8 ordu)

**Oinarrizko Interneta.** Nabigatzen eta posta elektronikoak bidaltzen ikasi.

**Maiatzak 9-22** 09:00-11:00 (20 ordu)

**Mekanografia.** Ikasi hutsetik.

**Maiatzak 26-30** 09:00-11:00 (10 ordu)

**Google Maps.** Zure ibilbiderik onena arakatu eta aukeratu.

**Maiatzak 23** 09:00-11:00 (2 ordu)

Honez gain, urruneko ikastaro eta bideokonferentzia eskaintza zabalda.

Maiatzean Kzguna: Goizez 09:00-13:00

Kale Nagusia 37 · 20170 Usurbil · Tel.: 943 02 36 84  
[tutor.usurbil@kzguna.net](http://tutor.usurbil@kzguna.net) · [www.kzguna.eus](http://www.kzguna.eus)

### UDAL LIBURUTEGIA

Goizez, 10:00-13:00	●	2	●	●				
Astegunetan,	5	6	7	8	9	●	●	
10:00-13:00 eta 16:00-19:30	12	13	14	15	16	●	●	
Itxita	●	19	20	21	22	23	●	●
Goizez	●	26	27	28	29	30	●	●

Sutegi Eraikina · Irazu kalea, 14 - 20170 Usurbil  
Tel.: 943 360 692 · [www.liburutegiak.euskadi.eus/katalogobateratua](http://www.liburutegiak.euskadi.eus/katalogobateratua)

**Usurbilgo Udala**  
Kultura, Euskara eta Gazteria Saila  
Tel. 943 371 999  
[kultura@usurbil.eus](mailto:kultura@usurbil.eus)  
[www.usurbilkultura.eus](http://www.usurbilkultura.eus)



**usurbilkultura.eus**

Herriarraz tresna  
Usurbilgo kultura zabaltzeko

## USURBIL KULTURA 2025eko maiatza

🎵	Larunbata 19:30 Salbatore Elizan	ORGANO KONTZERTUA: ERWAN LE PRADO	3
📖	Igandea 09:30 Andatzan	ANDATZA EGUNA	4
🎭	Asteazkena 18:00 Txirikordako sotoan	ETXEBIZITZAREN EGOERA, USURBILEN	7
🎪	Asteazkena 18:00 Sutegi Liburutegian	IRAKURKETA SOLASALDIA: "ORKESTRA LURTARRA"	7
🎵	Ostirala 19:30 Sutegi auditoriumean	RUPER ORDORIKA	9
🎭	Larunbata Egun osoz	"IZAN HARTXINTXAR" EGUNA	10
🎪	Asteazkena 18:00 Sutegi Liburutegian	IPIUIN KONTAKETA: MAITE FRANCO	14
🎭	Asteazkena 18:00 Potxoenean	USURBILGO IRISGARRITASUN UNIBERTSALERAKO PLAN INTEGRALA	14
🎭	Osteguna Goizez Erdigunean	SAN IXIDRO, BASERRITARREN EGUNA	15
🎭	Osteguna 18:30 Erdigunean	EUSKARALDIA HASI DA!	15
📖	Osteguna 18:00 Pelaiocenean	"HETERO" LIBURU AURKEZPENA	15
🎭	Ostirala 18:30-20:00 Potxoenean	HELDUENTZAKO SOLASALDI FILOSOFIKOA	16
🎵	Ostirala 19:00 Artzabal plazan	ZUMARTEKO SAXO TALDEAK KONTZERTUA	16
🎵	Larunbata 17:30 Kalexarko plazan	KALEXARKO UDABERRIKO TRIKITI FESTA	17
🎭	Igandea 11:00 Erdigunean	XLII. USURBILGO SAGARDO EGUNA	18
🎪	Asteartea 17:45 Zubietako plazan	UDAFEST ZUBIETAN: ESKULANEN EGUNA	20
🎭	Asteartea 18:30 Sutegi Liburutegian	IDAZKETAREN ALDE: PROIEKTU AURKEZPENA	20
🎭	Asteazkena 17:30 Potxoenean	ESTI ANSOTEGI: OSASUN MENATALA ETA NERABEAK	21
🎪	Asteazkena 17:45 Zubietako plazan	UDAFEST ZUBIETAN: IPIUIN KONTALARIA	21
🎭	Osteguna 19:00 Potxoenean	EUSKAL HERRI IPARRALDEAN SORTZEN ARI DEN JABEGO MODU BERRIAREN AURKEZPENA	22
🎭	Ostirala 17:00 Erdigunean	ZIORTZA: GAZTEENTZAKO TAILERRAK	23
🎪	Ostirala 17:45 Zubietako plazan	UDAFEST ZUBIETAN: GINKANA, MUSIKA, PINTXOAK	23
🎵	Ostirala 18:30 Frontoian	ZUMARTE MUSIKA ESKOLAKO TALDE INSTRUMENTAL DESBERDINAK	23
🎭	Larunbata Egun osoz	ZIORTZA: EGUN OSOKO JAIA	24
📖	Larunbata 19:00 Pelaiocenean	"RING" ANTZEZLANA	24
🎵	Igandea 10:30 Erdigunean	KANTU FESTA	25
🎪	Osteguna 18:00 Sutegi Liburutegian	IPIUIN KONTAKETA. AMAIA EGIDAZU	29

### ERAKUSKETAK

Sutegiako erakustaretoan	ZIORTZAREN 40. URTEURRENA	<b>Maiatzak 23-25</b>
Sutegiako erakustaretoan	ZUMARTEREN 40. URTEURRENA	<b>Maiatzak 27 Ekainak 1</b>

2025eko MAIATZA

# USURBIL Kultura



## KALEXARKO UDABERRIKO TRIKITI FESTA '25

Kalezar auzolanean eraikiz



**MAIATZAK 18**  
**XLII. USURBILGO SAGARDO EGUNA**

# 21

Asteazkena 17:30 Potxoenean

## Esti Ansotegi:

### Osasun mentala eta nerabeak

**Antolatzaileak:** Usurbilgo Gazteleku eta Hitz Aho Guraso Elkarte.

**Laguntzaileak:** Gipuzkoako Foru Aldundia eta Usurbilgo Udala.

Hauek dira landuko diren edukiak eta gaitasunak:

- Gure seme-alaben osasun mentala, nola sentitzen dira?
- Zer da osasun mentala?
- Zerk kezkatzen gaitu osasun mentaletik?
- Adimen emozionalaren garrantzia
- Ezegonkortasun emozionala
- Zer dira gatazkak?
- Detekzio goiztiarra eta babesgabetasuna
- Nola lagun diezaiekegu? Familientzako aholku batzuk



# 22

Osteguna 19:00 Potxoenean

## ETXALDE

### Euskal Herri Iparraldean sortzen ari den jabego modu berriaren aurkezpena

**Antolatzailea:** Etxalde kooperatiba.

Beñat Etchebest, Etxalde kooperatibako lehendakaria, Usurbilen dukegu.

Familian, auzoan, herrian, lur eta etxebizitzaren zaintzeko proposamen bat.

Jabego hutsak elkartzuz, gozamenak banatuz, ondoko belaunaldien babesteko modu berria.

Euskal Herriko lur eta etxeetaz birjabetu bagintez?

Orduan, ondoko belaunaldiek, beren gogo, indar, kemen, hats guzira, bizitzeko balia lezakete.

### ZIORTZAREN 40. URTEURRENA

**Antolatzailea:** Ziortza Gazte Elkarte. Ziortzak aurten 40 urte beteko ditu. Urteurrenaren harira, hainbat ekimen antolatuko dira herrian.

**Maiatzak 23 17:00** Gazteentzako tailerrak.

**Maiatzak 24 09:00** Egun osoko egitaraua ume, gazte eta helduentzat.



## LEHIAKETA ETA DEIALDIAK

### SANTIXABELETAKO EGITARAUAREN DISEINUA EGITEKO LEHIAKETA

Usurbilgo Udalak, Jai Batzordearekin elkarlanean, Santixabel jaietako egitarauaren diseinua egiteko lehiaketa martxan jarri du. Lanak maiatzaren 23a bitartean aurkez daitezke Usurbilgo Udaleko erregistroan.

**Oinarriak:** [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) webgunean, [kuktura@usurbil.eus](mailto:kuktura@usurbil.eus)-era idatzita edo 943 37 19 99 telefonoan.

### NORK BOTAKO DU SANTIXABELETAKO TXUPINAZOA? PROPOSAMENAK JASOTZEKO EPEA ZABALIK

Santixabeletako Jai Batzordeak "Nork botako du txupinazoa?" ekintza jarri du martxan. Santixabel jaien hasiera ekitaldian nor omendu erabakitzeko herriarrazen proposamenak jaso nahi dituzte bertan. Proposamenak maiatzaren 23a baino lehenago helarazi behar dira [kultura@usurbil.eus](mailto:kultura@usurbil.eus) helbidera. Bestela, Sutegi liburutegian, Oiarde Kiroldedian, Potxoenea Kultur Etxean eta Usurbilgo Udalean jarri diren gutunontzietara ere zuzenean ekar daitezke. Nahikoa da orri batean proposamenaren berri ematea.





# EKINTZAK

# 3

Larunbata 19:30 Salbatore Elizan

## Organo kontzertua: Erwan Le Prado

**Antolatzaileak:** Usurbilgo Organoaren lagunak eta Gipuzkoako Organoak plazara.  
**Organo jotzailea:** Erwan Le Prado.



Aurten ere, "Organoak plazara" ekimenak aukera bikaina ematen digu organoaren musika Gipuzkoako plaza, eliza eta espazio publikoetara eramateko. Usurbilgo emanaldian Erwan Le Prado organo jotzailea izango du gure artean. Caengo Kontserbatorioko organo irakaslea da, eta Falaiseko Parisot eta Saint-Etienne de Caengo Cavallé Coll organo historikoen titularrak.

# 4

Igandea 09:30 San Estebango plazan

## Andatza Eguna

**Antolatzaileak:** Ibai-ondo elkarte eta Zirimara.  
**Babesleak:** Saizar Sagardotegia eta Usurbilgo Udala.



**9:30ean** San Estebango plazatik abiatuta FAMILIA PLANA. Familia giroan, Andatzako igoerari ekingo diogu, ibilbidean zehar zenbait jolas eginez. Behin gora igota ere jolas batzuk egingo ditugu.  
**Goizean zehar** pintxoak eta sagardoa dastatzeko aukera izango da Andatzako bordan.  
**12:30** Argazkia aterako dugu denok Andatzako bordaren parean.

Usurbilgo herritar guztioi Andatzara igotzeko gonbita egin nahi dizuegu. Zirimarako familia planean edo, norbera, bere kaxa, nahi duen bide eta lagunekin. Behin Andatzara igotakoan, denok argazkia atera eta elkarrekin dantzatu edo salda eta pintxoak hartzeko aukera izango da.

Giro ederra egongo da aurten Andatzan! ANIMATU!

# 7

Asteazkena 18:00 Txirikordako sotoan

## Etxebizitzaren egoera, Usurbilen: diagnostikoaren eta ekintza planaren aurkezpena

**Antolatzaileak:** Usurbilgo Udala.  
**Gonbidapenak:** usurbilkultura.eus webgunearen bidez.



Udalak Usurbil etxebizitzak alokatzeko tentsio handiko eremu izendatzeko eskaera egin dio Eusko Jaurlaritzari. Hori egin ahal izateko, beharrezkoa zen, aurrez, etxebizitzaren egoeraren azterketa bat egitea, eta izendapena eskuratzeko irizpideren bat betez gero, hiru urterako plan bat osatzea. Diagnostikoaren zein planaren berri emateko aurkezpen irekia izango da.



## LIBURUTEGIKO EKINTZAK

**Antolatzailea:** Sutegi Udal Liburutegia.

### MAIATZAK 7, ASTEAZKENA

#### Irakurketa Solasaldia: "Orkestra Lurtarra"

**18:00** Sutegi Udal liburutegian.  
**Norentzat:** 9 urtetik gorako haur eta gaztetxoentzat.  
**Iraupena:** 1,3 ordu.  
**Izen ematea:** Udal liburutegian.  
Mintzagai izango dugun liburua, Harkaitz Canoren ORKESTRA LURTARRA liburua(k) eskuragarri dituzue.



### MAIATZAK 14, ASTEAZKENA

#### Ipuin kontaketa: Maite Franco

**18:00** Sutegi Udal Liburutegian.  
**Norentzat:** 6-8 urte bitarteko haurrentzat.  
**Iraupena:** 1 ordu  
Ipuin kontaketa, Maite Frankoren eskutik.



### MAIATZAK 20, ASTEARTEA

#### Idazketaren alde: Proiektu aurkezpena

**18:30** Sutegi Udal Liburutegian.  
**Iraupena:** 1,15 ordu.  
Yolanda Arrietaren eskutik. Publiko zabalari zuzendua.



### MAIATZAK 29, OSTEGUNA

#### Ipuin kontaketa: Amaia Egidazu

**18:00** Sutegi Udal Liburutegian.  
**Norentzat:** 4-5 urte bitarteko haurrentzat. Iraupena: 1 ordu.  
Ipuin kontaketa, Amaia Egidazuren eskutik.



# 8

Osteguna 19:00 Sutegiko auditoriumean

## Mahai ingurua eta solasaldia Energia trantsizioa BAI, baina, NOLA?

**Antolatzailea:** SORTALDE, Usurbilgo Energia Berriztagarrien Komunitatea Koop.S.  
**Sarrera:** doan.

Trantsizio ekosoziala gaur egungo erronkarik handienetakoa dugu: erregai fosiletan oinarritutako energia sorkuntzatik, berriztagarrietara aldaketa egitea, tokiko beharretara zuzenduta, kudeaketa eta gobernantza komunitarioa oinarri duela. Hala-ber, energia sorkuntza berriztagarrii mugarik jarri behar al zaie? Berriztagarria eta jasangarria uztargarri izateko zeintzuk dira baldintzak? SORTALDEK, gaur egungo trantsizio ekologikoa ardatz, punta puntako hiru ikerlari ekarriko ditu gurera: Aitziber Sarobe, Iñaki Bárcena eta Markel Peñalva.



# 9

Ostirala 19:30 Sutegiko auditoriumean

## Ruper Ordorika

**Antolatzaileak:** Jexux Artze kultur Elkarte eta Usurbilgo Udala.  
**Sarrerak:** 8 € usurbilkultura.eus webgunearen bidez.

Ruper Ordorika ahots bereziko kantaria dugu, musikaltasun oparoaz gain, testu bikainak lantzen dituena. Bere ibilbidean, disko handiak osatu ditu bai bere kantu eza-gunekin, bai eta "Hiru Truku" taldearekin, Euskal Herriko kantu zaharrek.



Ruper Ordorika maila gorenean dabil euskal musikan, dela berak idatzitako kantuekin, dela Bernardo Atxaga edo Joseba Sarrionandia bezalako idazleen testuekin. Oihartzun sakoneko abesti-egilea dugu. Oraingoan Ruper Ordorika horrela arituko zaigu: ahots eta gitarra soilez. Kontzertu berezia... Era elektrikoan nahiz era akustikoan mugak gainditzeko gai den musikaria dela erakutsi du Ruper Ordorikak.

# 10

Larunbata Egun osoz Erdigunean

## "Izan Hartxintzar" Eguna

**Antolatzaileak:** Zarauzko Salbatore Mitxelena ikastola eta Udarregi Ikastola.

**"Zarauzko ikastolak Hezkuntza Sailaren eskutik jasandako 140.000 euroko isunari elkartasunez erantzuteko ekintza"**

**Egitaraua:**  
11:30 Esperimentazio gunea. HHko familientzat. Sutegiko erakustaretoan. Izen ematea, hemen:  
11:30 Malabarak eta trebetasun jolasak. Bertso-triki poteoa.  
14:30 Bazkaria (Askatasun plazan).  
Haurren menua: 10€  
Helduen menua: 22€  
Txartelak erosteko: Zarautzen: ikastolan eta Eguzkin; Usurbilen: Ikastolan eta Txiribogan; Orion: Kolon Txikin.



- Murala Margotzea
- Zunba saioa
- Disko festa

# 15

Osteguna Goizean Erdigunean

## San Ixidro, Baserritarren Eguneko ospakizuna

**Antolatzailea:** Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba.  
**Laguntzailea:** Usurbilgo Udala.

**10:30** Trikitilariak.  
**11:00** Hamaiketako herrikoa.  
**12:00** Bertsolariak: Ane Labaka eta Beñat Gaztelumendi.  
**12:30** Idi Dema.  
**14:30** Bertso Bazkaria Artzabalen. (Bazkari txartelak Artzabalen eta Alkartasun salgai).

# 15

Osteguna 18:30 Erdigunean

## Euskaraldia hasi da!

**Antolatzailea:** Euskaraldiko batzordea.  
**Laguntzaileak:** Hurbilago elkarte, Usurbilgo Buruhandiak eta Zumarte Musika Eskola.



**18:30** Kalejira Usurbilgo Buruhandiek lagunduta.  
**20:00** Euskaraldiaren TXUPINAZOA Mikel Laboa plazan.  
Ahobizi eta Belarriprestak, nor bere roletik aritzeko unea da. Jantzi txapa eta etorri hasiera ekitaldira. Euskararen erabilera aktibatzeke 11 egunez Euskal Herri osoan egingo den ariketa kolektibo bat da Euskaraldia. Euskaraz bizitzea posible egingo duten neurriak eta espazioak sorrarazi nahi ditugu eta ELKAR MUGITUZ EGINGO DUGU!

## EMAKUMEON ETXEA

### MAIATZAK 15, OSTEGUNA "Hetero" liburu aurkezpena

**18:00** Pelaiocenean.  
**Sarrera:** Doan.



Uxue Alberdi Estibaritzek "Hetero" bere azken narrazio liburua aurkeztuko du eta ondoren solasaldia izango dugu.



### MAIATZAK 24, LARUNBATA "Ring" antzezlan

**19:00** Pelaiocenean.  
**Sarrera:** doan. Gonbidapena eskuratu behar da usurbilkultura.eus webgunearen bidez.  
**Hizkuntza:** elebiduna.

Ring antzezlan, Evaren alabak antzerki taldearen eskutik. Ring batean sartzen diren bi aktoreekin hasiko da antzezlan. Bata gizonaz jantzi dago eta bestea emakumez. Ikusleek ring-a inguratzen dute. Aurkezle batek pertsonaiak iragarri eta ikuskizuna hasten da.



# 16

Ostirala 18:30 Potxoenean

## Helduentzako tertulia filosofikoa

**Antolatzaileak:** Usurbilgo Oinherri eta Jakinmin elkarteak.  
**Gidaritza:** Garazi Aizpurua.  
**Izen-ematea:** Doan. Usurbilkultura.eus webgunearen bidez.  
**Partaide kopurua:** 15 pertsona.

Jator-giro batean elkartu eta aurkezten zaigun gai edo galderaren aurrean denon artean elkarrekin filosofatzeko proposamena da gurea. Usurbilgo Oinherri eta Jakinmin elkarteak haurrekin zein helduekin filosofatzen darama hiru urteetan zehar. Arrakasta ikusirik aurten ere filosofatzen ibiliko gara! Bazatoz?

## ZUMARTEREN KONTZERTUAK



**Antolatzailea:** Zumarte Musika Eskola.

**MAIATZAK 16, OSTIRALA**  
Zumarte Saxo taldeak kontzertua. **19:00** Artzabal plazan.

**MAIATZAK 23, OSTIRALA**  
Zumarte Musika Eskolako Talde Instrumental desberdinak. **18:30** Frontoian.

# 17

Larunbata 17:00-19:00 Gaztelekuan

## Hitzaldia: Ongizate emozionala

**Antolatzailea:** Usurbilgo Gaztelekua.  
**Laguntzailea:** Gipuzkoako Foru Aldundia.  
**Norentzat:** 12-16 urteko gazteak.  
**Izen ematea:** Doakoa. Gaztelekuan edo usurbilkultura.eus webgunearen bidez.

Hitzaldiaren helburua osasun mentaleko ohitura osasungarriak sustatzea, arrisku-faktoreen prebentzioa eta babes-faktoreen garapena bultzatuz. Lehen saio honetarako, marrazki-teknika artistikoetan oinarritutako dinamika erabiliko dira. Introspektzio emozionala errazteko bizipen- eta esperientzia- tresna gisa erabiltzen dira marrazkiak.



# 17

Larunbata 17:30-21:30 Kalexarko Plazan

## Kalexarko Udaberriko Trikiti Festa 2025

**Antolatzailea:** Belmonte Auzo Elkarte.  
**Laguntzaileak:** Zumarte Musika Eskola eta Usurbilgo Udala.  
**17:00** Nahika Etxeberria, Iruñe Etxabe, Malen Aierbe eta Ekhine Balerdi (Zumarteko ikasleak).  
**18:00** Julen Labaka eta Elaia Azpillaga (Errezilgo ikasleak).  
**19:00-21:00** Izer eta Alabier.

Euria eginez gero eguna atzeratu egingo da. Zumarte Musika Eskolarekin elkarlanean, Errezil eta Zumarteko ikasleekin erromerierekin hasiz eta Izer eta Alabier trikitilariekin amaituz alaituko dugu auzoa larunbat arratsaldean.

